Hernaniko Udala

# HERNANIKO HIRIGINTZA-PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINA

**2016KO EKAINA**

# JARDUKETA-PROGRAMAREN LEHENENGO BERRIKUSPENA

**HASTAPENEZ ONARTZEKO AGIRIA**

**UDALEKO HIRIGINTZA-BULEGOA**

**"HERNANIKO HIRIGINTZA-PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINEKO JARDUKETA-PROGRAMA LEHENENGO BERRIKUPENA"**

**DOKUMENTUAREN AURKIBIDEA**

Orr.

**I.- LEHEN ZATIA: MEMORIA**

I.1.- Aurrekariak ..... 2

I.2.- Egokitasuna eta abagunea ..... 3

I.3.- Dokumentuaren xedea ..... 5

I.4.- Indarreko Jarduketa Programaren exekuzioari buruzko analisia ..... 6

I.4.1.- Sistema Orokorrak eta jarduketa estrategikoak exekutatzea
I.4.2.- Jarduketa Integratuak exekutatzea
I.4.3.- Garapen Planeamendua
I.4.4.- Hirigintza Jarduketako Programak

I.5.- Hiri-garapena (2010 – 2016 epealdia) ..... 10

I.6.- Berrikuspenaren helburuak eta irizpideak ..... 12

I.7.- Proposatutako Jarduketa Programaren deskribapena eta justifikazioa ..... 13

**MEMORIAREN ERANSKINAK**

- 1 ZK. ERANSKINA: Hernaniko indarreko AASSBTBaren Jarduketa Programa
- 2 ZK. ERANSKINA: Lehentasunezkotzat programatutako edo lehen laurteko AASSBTBeko jarduketen exekuzio-egoeraren berri ematea.
- 3 ZK. ERANSKINA: Berrikusitako Jarduketa Programaren laburpen-taulak

**II.- BIGARREN ZATIA: JARDUKETA-PROGRAMA**

II.1.- Programak arautu ez dituen garapenak eta jarduketak ..... 16

II.2.- Sistema Orokorrak eta jarduketa estrategikoak exekutatzeko lehentasunak eta epeak ..... 18

II.3.- Jarduketa Integratuak exekutatzeko lehentasunak eta epeak ..... 21

II.4.- Garapen-planeamendua izapidetzeko epeak ..... 25

II.5.- Hirigintza Jarduketako Programak izapidetzeko epeak ..... 26

II.6.- Jarduketa Programa berrikustea eta aldatzea ..... 27

## III.- PLANOAK

1 ZK. – Indarreko Jarduketa Programa (AASSBTB)

2 ZK. – Hirigintzako Esku-hartzeak (2010 – 2015 epealdia)

3 ZK. – Berrikusitako Jarduketa Programaren proposamena

# I.- LEHEN ZATIA:

# MEMORIA

## I.1. – AURREKARIAK

2011ko apirilaren 11n, Hernaniko Udalak, Udal Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina (aurrerantzean AASSBTB) behin betiko onartzea erabaki zuen batzar-bilkuran.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen bidez planeamendu orokorrari eskatutako betebeharretara egokituta geratu ziren dokumentu horretako zehaztapenak, eta bertan, "Jarduketa Programa" izenekoa sartua dago. Horren testua Memoria honen 1 zk. Eranskin gisa doa.
AASSBTBak, *Jarduketa Programaren xedea* zehazteko unean *(D Dokumentua)*, hauxe ezartzen du:

> *"AASSen Berrikuspenaren Testu Bategin hau idazteko unean, beharrezko eta egoki ikusi da planeamendu orokorreko tresna honetan zehaztapen horiek barneratzea:*
>
> - ***Lurzorua baliatzeko modua kontrolatuko dela bermatzeko, eta ziurtatzeko haren erabilera bat datorrela hirigintza-antolamendua egituratzen duten sistemen exekuzioarekin.***
> - ***Planeamenduak egindako antolamendu- eta exekuzio-proposamenak eragile publiko eta pribatuei dakarzkien konpromisoen erreferentzia izateko.***
> - ***Hirigintza-garapen bakoitzarentzat finkatzen diren kargen oreka konprobatzeko.***
> - ***Dokumentu hau Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak planeamendu orokorrari eskatzen dizkion baldintzetara egokitzeko.***

Era berean, Programa azaltzean, hauxe dio:

> *"Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeko 53. eta 55. artikuluek adierazten dute alderdi hauek zehaztu behar dituela planeamendu orokorrak egiturazko hirigintza-antolamenduaren baitan:*
>
> - ***Hiri-antolamenduaren eta lurzoruaren okupazioaren estrategia.***
> - ***Hirigintza-garapenaren sekuentzia logikoa, garapen hori hiri-bilbearekin bat egiteko bete behar diren baldintza objektiboak arautuz.***
> - ***Jarduketa integratuek izango duten lehentasunen oinarrizko ordena eta horiek programatuak izateko bete behar dituzten baldintzak.***
> - ***Garapeneko plangintza egin eta onartzeko epeak eta lurzoruaren programazioa egitekoak***
>
> *Zehaztapen horien arabera, AASSen Berrikuspenaren Testu Bategin honek onartutako hirigintza-garapenari buruzko Jarduketa Programa proposatzen da jarraian."*

Jarduketa Programak, betebehar horietatik eta horiek betetzeko erabaki zituzten irizpideetatik abiatuta –haren justifikazio-memorian jasoak–, "*launa urteko segidako bi epe eta denbora mugagabeko epe bat*" erabaki zituen, eta estrategia bat finkatu zuen Udalerriaren hirigintza-garapena arautzeko, honela gauzatua:

- Sistema Orokorrak eta jarduketa estrategikoak exekutatzeko lehentasunak eta epeak, ondokoekin loturik:
  - Gune Libreen Sistema Orokorra eta Lokala.
  - Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorraren eta Lokalaren sarea.
  - Komunikazio Sistema Orokorraren eta Lokalaren Sarea.
  - Beste elementu estrategiko batzuk.
- Jarduketa Integratuak exekutatzeko lehentasunak eta epeak.
- Garapen-planeamendua izapidetzeko epeak.
- Hirigintza Jarduketen Programak izapidetzeko epeak.

## I.2. - EGOKITASUNA ETA ABAGUNEA

Dagoeneko bost urte baino gehiago dira AASSTB eta horren Jarduketa Programa indarrean daudela.

Denbora-tarte horretan hainbat hirigintza-jarduketa egin dira Hernaniko udalerrian, esate baterako garapen-plan desberdinak onetsi dira –Plan Partzialak, Plan Bereziak, Xehetasun Azterketak eta abar–, baita hirigintzako exekuzio-proiektuak ere –Hirigintza Jarduketen Programak, Lurzatiak Banatzeko Proiektuak eta abar–, edota etxebizitza-erabilerarako, jarduera ekonomikoetarako eta abarretarako eraikinak eraiki dira eta, halaber, ekimen publikoko nahiz pribatutako hainbat hirigintza-obra ere egin dira.

Beste alde batetik, Jarduketa Programa horrek, bere irizpideen artean, hauxe zioen:

> *"Nabarmentzekoa da, alde batetik, 2007an onartu zen Arau Subsidiarioen Berrikuspeneko proiektuak zenbait eskubide finkatu zituela eta Testu Bategin honek araututako hirigintza-antolamenduak egiten duen bizitegi-garapeneko proposamenak hamasei urte baino gehiagorako ase nahi dituela arlo horretan izango diren handitze-eskakizun arruntak. Bestetik, egiaztatu da egungo egoera ekonomikoak hainbat zalantza sortzen dizkiela herri-administrazioei eta pertsona partikularrei; beraz, planeamendu orokor hau indarrean jarri eta zortzi (8) urtera, prozedura formal baten bidez tramitatu beharko da Jarduketa Programa honen berrespena, edo, beharrezkoa ikusten bada, haren egokitzapena edo aldaketa.* ***Hala ere, premiazkoa balitz eta premiazkotasun hori behar bezala justifikatuta badago, egokitzapen edo aldaketa horri ekiteko aukera izango da, baldin eta lau (4) urte igaro badira gutxienez planeamendu orokor hau behin betiko onartu zenetik.****"*

2010eko ekainean amaitu zuten AASSBTBaren agiria idazten, Euskal Herriko "*egoera ekonomikoaren inguruko zalantza*k" –testuan aipatzen den moduan– hasi berriak baino ez zirenean. Azken bost urte hauetan, arazo handiak eragin dituen testuinguru ekonomiko eta finantzario baten mende egon da hirigintza-jarduera, eta era guztietako aurreikuspenak gaindituz, inbertsio publikoaren gaitasuna oso murriztuta geratu da, eta sustapen pribatuak ere baldintzatuta geratu dira, eskaerek eta kreditu-lineek nabarmen atzera egin dutelako.

Baina ekonomia eta finantza alorrean zailtasun handiko garai honek ez dio hirigintza-jarduerari bakarrik eragin, eta hala, hiriaren eta lurraldearen antolamendurako jokaleku berri batean kokatu gara, iraunkortasunaren aldeko irizpideak eztabaidaezinak bihurtu direlako. AASSBTBak egin zuen moduan, orain izapidetzen ari diren lurralde-antolaketarako agiriek ere (Donostialdeko LAA eta LPP) zuhurtziaren alde eta kontrolaren alde egiten dute lurzoru berriak okupatzeko orduan, eta horrekin batera, dagoen ehundura lehengoratzeko estrategiak sustatzen dituzte.

Horrek guztiak behar bat sortzen du, batetik, Udalerrian hirigintza-garapenaren egungo egoera zein den xeheki ezagutzeko eta aztertzeko, eta bestetik, programazio hori egungo errealitatearekin lotuagoak dauden hiri-garapenerako egitasmoetara berregokitzeko.

Beste alde batetik, azpimarratu behar da, indarreko Programa honek oinarritzat dituen irizpideek berariaz dioten moduan, AASSBTBak onartutako antolamenduak garapen-ahalmen benetan handia duela, eta bertan eskatzen denez, interes publikoaren, iraunkortasunaren, arrazionaltasunaren eta zuhurtasunaren irizpideetan oinarriturik,

aipatutako planeamendu horretako aurreikuspenak exekutatzeko orduan beharrezko kontrola bermatuko duen estrategia bat gauzatu behar da.

Xehetasun horiek guztiak aztertuta, eta kontuan izanik lau urtetik gorako denbora-tartea igaro dela planeamendu orokorra indarrean sartu zenetik, eta denbora hori, inondik ere, nahikoa dela izandako hiri-garapenaren ikuspegi egoki bat edukitzeko, Hernaniko Udalak beharrezko eta egoki ikusi du indarreko AASSBTBaren Jarduketa Programaren berrikuspenari ekitea.

## I.3.- DOKUMENTUAREN XEDEA

Dokumentu honen xedea 2011ko apirilaren 11n behin betiko onetsitako Hernaniko Hirigintza Planeamendurako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginari, hots, udalerriko indarreko planeamendu orokorrari, Jarduketa Programa bat gehitzea da, proposatutako hirigintza-antolamenduaren exekuzioa arautuko duena, hirigarapenak egun duen egoera eta Udalbatzak xede horri begira hartutako irizpideak kontuan izanik.

Jarduketa Programa hori, alde batetik, lurzoruaren egituraketa antolatu eta zentzuzko bat egiteko eta hori hirigintza-antolamendua egituratzen duten sistemen exekuzioarekin koordinatzeko bermea da, eta beste alde batetik, eragile publiko eta pribatuek beren gain hartuak dituzten konpromisoen erreferentzia da; konpromiso horiek, hain zuzen ere, hirigintza antolatzearren eta exekutatzearren planeamendu orokorrak onartutako proposamenetatik hartu dira.

Dokumentu honek 2011ko AASSBTBaren D – Agirian jasota dauden Jarduketa Programari buruzko zehaztapenak berrikusi eta ordezkatzen ditu, ondorio guztiei begira.

## I.4.– INDARREKO JARDUKETA PROGRAMAREN EXEKUZIOARI BURUZKO ANALISIA

(ikus 1 eta 2 zk. planoak)

Jarraian, orain arte indarrean egon den AASSBTBaren Jarduketa Programak onartutako aurreikuspenek 2010 – 2016 epealdian zehar izandako exekuzio- eta betetze-maila aztertuko da. Epealdi horretan, bai Hernaniko Udalak eta bai udalaz gaindiko beste erakunde batzuek eta sustatzaile partikularrek ere, zenbait hirigintza-jarduketa egin dituzte udalerrian, eta jarduketa horietako batzuen exekuzioa ez zegoen aipatutako Jarduketa Programa horren mende, eta beraz, ez dira aipatzen analisi honetan.

### I.4.1.- Sistema Orokorrak eta jarduketa estrategikoak exekutatzea

A.- Gune Libreen Sistema Orokorraren eta Lokalaren Sarea

- LEHEN LAURTEKORAKO aurreikusitako jarduketen barruan, Villa Nisuma. (HI)SG.03 (udal ekimena) hiri-lorategia egokitzeko lanak egin dituzte, eta beraz, ondorengo hauek egiteko daude oraindik:
    - Ispizuako gune publiko-parkea sortzea. Ezkiaga pasealekua Zinkoenearaino luzatzea. (HE)HS. 01
    - Politena Parkea handitzeko egokitzapen-lanak. (HI)ET.04

B.- Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorraren eta Lokalaren sarea.

- LEHEN LAURTEKORAKO aurreikusitako jarduketa ez da exekutatu:
    - Transpacar Udal Zentroa ordezkatzea. Kokapena erabakitzeko dago.

C.- Komunikazio Sistema Orokorren eta Lokalen Sareak

- LEHEN LAURTEKORAKO aurreikusitako jarduketetatik ondorengo hauek dagoeneko exekutatu dira:
    - Karabelgo zubi berria. (UE)PK.02 (URA Agentziaren ekimena)
    - Akerregiko biribilgune berria. (UE)AK.04 eta (UE)ZE.01 (Udalaren ekimena)

  Horrenbestez, ondorengoak egiteko daude oraindik:
    - Florida eta Landare elkartuko dituen bidearen eraikuntza (eta trenbide azpiko tunela). (HIFL.07 eta (UB)LZ.03
    - Landare eta Zubiondoko zubia elkartuko dituen bidearen tarte bat eraikitzea. (UB)LZ.02. 2016an egitea aurreikusia dago.

  Beste alde batetik:
    - Karabelgo aldirietako aparkalekua –(UB)LZ.04– dagoeneko martxan dago (kirol-pista zaharra), nahiz ez den horren hedapena gauzatu, Zubipe eremuaren kontura (UE)PK.01.
    - Karabel auzoaren inguruko bide-lezoia –(UE)PK.01 eta (UE)PK.02– oraindik ez da gauzatu, baina orain berriki hasi dira obra horiek egiten.

- Hernaniko Udalak erabaki beharreko epeen mende geratu ziren obretatik ondorengo hauek gauzatu dira:
  - "Latsunbe-Urbieta hiriko igogailua (HM)LA.02".
  - AASSBTBean jasota dagoen Mugikortasun Iraunkorreko Planak proposatutako zenbait jarduketa (Txillida Pasealekua, Antziola, Latsunbe, Antziola – Galarreta, eta abar).
  - Bidegorrien Hiri Sarearen parte bat (Lizeaga-Santa Barbara, Latsunbe, Florida eta Portu-Karabel ardatzak eta Zikuñaga Akerregi eta Karabelekin lotzea).
  - Karabel eta Portu auzoen artean oinezkoentzako lotura egitea.

  Horrenbestez, ondorengoak egiteko daude oraindik:
  - Larramendi – Sandiusterri (HH)LI.01 eta Urbieta-Karobieta (HM)LA.02 hiri-igogailuak
  - Bestizan inguruan trenbidearen gaineko igarobidea. (HI)FL.10
  - Zikuñaga-Eziago ibai-ertzeko pasealekua. (UE)ZE.01
  - Bidegorrien Hiri Sarea osatzea.
  - Mugikortasun Iraunkorreko Planean jasota dauden beste jarduketa batzuk hirigunean egitea.

  Galarreta eremua garatu izanaren ondorioz indarreko Programan aurreikusi ez diren arren, beharrezko ikusten da ondorengo lanak egin beharra kontuan hartzea:
  - Sorgintxulo – Galarreta (HK)SO.01 hiri-igogailua
  - Latsunbe – Sorgintxulo (HM)LA.04, (HM)LA.05 eta (HK)SO.01 espaloi-tartea eta bidegorria.

- Udalaz gaindiko hedadura duten Komunikazio Sistema Orokorrei dagokienez, horien obrak erakunde eskudunek (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza edo Estatuko Gobernua) erabakitzen duten programazioaren mende geratu badira ere, dagoeneko ondorengo hauek gauzatu dira:
  - Hegoaldeko Saihesbidearen bide-bikoizketa (A-15 Urumeako Autobia) (GFAren ekimena)
  - Probintziako Bidegorri Sarea (Martindegi – Akerregi tartea) (GFAren ekimena)

  Abiadura Handiko Trenari dagokion obra egiten ari dira eta egiteko daude oraindik:
  - ADIFen Geltokia eta Geralekua hobetzeko lanak
  - Mendebaldeko Saihesbidea (GI-2132 Zirkuituko Errepidea)

D.- Beharrezkoa da azpimarratzea, beste elementu estrategiko batzuekin alderatuta, hala nola URA Agentziak onetsitako Urumea Ibaiaren Azterketa Hidraulikoak proposatutako uholdeen aurkako babes-lanak (Programa honetan EPE MUGAGABEKO jarduketa gisa ageri dira), Karabelgo Zubi berriaren eraikuntzari dagokiona bakarrik gauzatu dela, Udalaren, URA Agentziaren eta (UE)PK.02 Arearen sustatzaile pribatuen artean izenpetutako Hitzarmenari esker.

## I.4.2.- Jarduketa Integratuak exekutatzea

Agiri honen 2 zk. Eranskinean "Lehentasunezko gisa edo lehen laurtekorako programatutako AASSBTBeko jarduketen exekuzio-egoerari buruzko adierazpena" jasotzen da, eta bertan, 22 fitxa ageri dira, beste hainbat eremu edo sektoreri dagozkionak, hirigintza-antolamenduak bizitegi-erabileretarako edo jarduera ekonomikoetarako xedatuak. Fitxa horiek planeamenduaren egungo egoeraren eta programatutako eremu bakoitzaren exekuzioaren azterketa xehakatu bat jasotzen dute.

A.- Lehentasunezko Jarduketa Integratuak (JI), indarreko Jarduketa Programak berehala exekutatu beharrekotzat jo dituenak:

- Horietatik ondorengo hauek erabat exekutatu dira:
  - (HH)TX.01.1 Bizitegietarako Eremua (190 etxebizitza eraiki dira)
  - (HH)LA.03.1 Bizitegietarako Eremua (15 etxebizitza eraiki dira)
  - (HH)SG.04.1 Bizitegietarako Eremua (307 etxebizitza eraiki dira)

- Partzialki gauzatu dira:
  - (HK)GA.05.1 Jarduera Ekonomikoetarako Sektorea –Hirugarren Sektorerako– (sestra gainean 24.279,72 m2-t- eta sestra azpian 27.152,64 m2-t- eraikitzeko emandako baimenak, eta beraz, 56.569 m2-t- oraindik baimena emateko zain daude).
  - (UE)PK.02.1 Bizitegietarako Eremua (87 etxebizitza eraikitzeko baimenak eman dira, eta 93 etxebizitza baimena emateko zain daude oraindik).

- Ondorengoak, berriz, gauzatzen hasteko daude oraindik:
  - (HK)GA.07.1 Jarduera Ekonomikoetarako – Industriarako Sektorea; behin betiko onetsitako Plan Partziala eta HJP ditu.
  - (HK)GA.06.1 Jarduera Ekonomikoetarako – Industriarako Sektorea, (HK)GA.09.1 Jarduera Ekonomikoetarako Eremua eta (HI)FL.08.1 Bizitegietarako Eremua, (UB)MA.02.1 Jarduera Ekonomikoetarako – Industriarako Eremua, (HM)VI.05.1 Bizitegietarako Eremua eta (HK)SB.03.1 Bizitegietarako Eremua; dagoeneko behin betiko onetsitako antolamendu xehakatua dute (Plan Partziala, Hiri Antolamendurako Plan Berezia edo, hala egokitzen denean, planeamendu orokorrak zuzenean ezarria).
  - (HK)GA.08.1 Jarduera Ekonomikoetarako – Hirugarren Sektorerako Sektorea, nahiz ez duen oraindik antolamendu xehakaturik.

B.- Indarreko Jarduketa Programaren arabera, LEHEN LAURTEKOAN hasteko eta hurrengo laurtekoan garatu eta amaitzeko proposatzen diren Jarduketa Integratuak (JI).

- Egun gauzatzen ari dira:
  - (HI)ET.04.1 Bizitegietarako Eremua (4 etxebizitza eraikitzeko baimenak eman dira, eta 8 etxebizitza baimena emateko zain daude oraindik).
  - (HI)SG.05.1 Bizitegietarako Eremua (48 etxebizitza eraikitzeko baimenak eman dira, eta 28 etxebizitza baimena emateko zain daude oraindik).

- Ondorengoak, berriz, gauzatzen hasteko daude oraindik:
  - (UG)EP.02.1 Jarduera Ekonomikoetarako Sektorea; behin betiko onetsitako Plan Partziala eta eta HJP ditu.
  - (HI)FL.07.1 Bizitegietarako Eremua eta (UB)MA.03.1 Bizitegietarako Eremua; dagoeneko behin betiko onetsitako antolamendu xehakatua dute (planeamendu orokorrak zuzenean ezarria).

- (HH)LI.03.1 Bizitegietarako Eremua, (HH)EL.02.1 Bizitegietarako Eremua eta (UB)MA.01.1 Zerbitzu Azpiegituretarako Eremua, nahiz oraindik ez duten antolamendu xehakaturik.

**I.4.3.- Garapen Planeamendua**

A.- Indarreko Jarduketa Programak Lehentasunezko Jarduketa Integratutzat erabakitako eremuen eta sektoreen planeamendu xehakatua idazteaz eta izapidetzeaz dioenarekin loturik:

- (HK)GA.05 eta (HK)GA.07 Jarduera Ekonomikoetarako Sektoreen Plan Partzialak eta (HI)FL.08.1 (AMR – Florida) eta (UE)PK.02.1 (Karabel) Bizitegietarako Eremuen Hiri Antolamendurako Plan Bereziak dagoeneko izapidetu dira eta behin betiko onetsi dira.

- (HK)GA.08 Jarduera Ekonomikoetarako Sektorearen Plan Berezia idazteko eta izapidetzeko dago oraindik.

B.- Indarreko Jarduketa Programak LEHEN LAURTEKORAKO ezartzen duenarekin loturik:

- (HE)HS.01 Herrigune Historikoaren Babeserako eta Birgaikuntzarako Plan Bereziaren Berrikuspena idatzia dago (2015eko uztaila) eta laster hori izapidetzen hastea aurreikusten da.

- Beraz, oraindik idazteko eta izapidetzeko daude (HH)LI.03. (Lizeaga) eta (HH)EL.02.1 (Villa S. Antonio) Eremuen Hiri Antolamendurako Plan Bereziak, baita LEH.06-Urumea Lurzoru Ez Hiritargarriko Eremuaren Plan Berezia ere.

**I.4.4.- Hirigintza Jarduketako Programak**

A.- Jarduketa Integratuko Eremuen Hirigintza Jarduketako Programen formulazioari dagokionez, garapen-planeamendua idatzia eta behin betiko onetsia dute, indarreko Jarduketa Programak ezarritakoarekin bat etorriz, eta (HK)GA.05 eta (HK)GA.07 Jarduera Ekonomikoetarako Sektoreenak eta (UE)PK.02.1 (Karabel) Bizitegietarako Eremuarenak izapidetu eta behin betiko onetsi dira. Horrenbestez, (HI)FL.08.1 (AMR – Florida) Bizitegietarako Eremuaren HJP idazteko dago oraindik.

B.- Indarreko Jarduketa Programak gehieneko epe bat (urtebetekoa) ezarri dien Jarduketa Integratuko Eremuen Hirigintza Jarduketako Programen formulazioari dagokionez, berriz, (HI)ET.04.1 (La Cumbre) Bizitegietarako Eremuarena bakarrik onetsi da behin betiko. Beraz, oraindik idazteko eta prestatzeko daude (UB)MA.03.1 (Marindegi), (HM)VI.05.1 (Transpacar) eta (HK)SB.03.1 (Arrigoain) Bizitegietarako Eremuen HJPk.

**I.5.- HIRI-GARAPENA (2010 – 2015 EPEALDIA)**

(Ikus 2 zk. planoa)

2010eko ekainetik, hots, AASSBTBaren agiria idazten amaitu zutenetik 2016ko uztailera doan tarte horretan Hernaniko Udalerriak bizi izandako hiri-garapena Memoria honen I.4 apartatuan azaltzen da, baina nolanahi ere, jarraian beste datu osagarri batzuk eskaintzen dira, 2010-2015 bosturtekoaren azalpen zehatzago bat eskaintzen dutenak:

A.- Bizitegi Erabilera:

Guztira 446 etxebizitza eraikitzeko baimenak eman dira, eta horietatik 327 Babes Ofizialekoak –Erregimen Orokorrekoak dira (% 73,32), 81 Gizarte Etxebizitzak dira (% 18,16) eta 38 salmenta-prezio librekoak edo kontzertatukoak dira (% 8,52). Sustapen motari dagokionez, 108 etxebizitza (% 24,21) sozietate publiko batek sustatu ditu, eta gainerakoak, 338 (% 75,79) sozietate pribatuek, eta azken hauetatik 199 herri-administrazioak kudeatutako orubeen gainean garatu dira.

Halaber, 61 etxebizitza edo zuzkidura-lojamendu eraikitzeko baimenak eman dira (horietatik 53 herri-administrazioak sustatu ditu).

2010 eta 2012 urte bitartean 307 etxebizitza eraikitzeko baimenak eman dira, (HI) SG.04 – Sagastiya Bizitegietarako Sektorearen garapen osoa hartuz, baita 53 zuzkidura-lojamenduetarako ere. 2013an ez zuten etxebizitzak eraikitzeko baimenik eman, eta 2014 eta 2015 artean (HI)SG.05 – Iturmendi eta (UE)PK.02 – Karabel sustapen pribatuko Bizitegietarako Sektoreen exekuzioari heldu zioten, guztira 138 etxebizitza egiteko baimena emanik. Krisi-garai horretan etxegintzaren sektoreak bizi izandako bilakaerari buruzko erreferentzia bat ematen digu prozesu honek.

Aztertutako 2010 – 2015 epealdian etxebizitzak eraikitzeko baimenek izandako batez besteko urteko erritmoari dagokionez, 81 etxeb/urtean izan da (92 etxeb/urtean, zuzkidura-lojamenduak ere barne). Konparazio baterako, bosturteko epealdiak kontuan hartzen baditugu, ikus dezakegu 2011 – 2015 epealdian batez besteko erritmoa 57 etxeb/urtean izan dela (71 etxeb/urtean, zuzkidura-lojamenduak ere barne), eta datu esanguratsu hori aurreko hiru bosturtekoetako (1996tik 2010era) erritmoaren erdia baino gutxiagoa da. Jarraian, Udalerrian 1960az geroztik bizitegien hiri-bilakaeran erdietsitako ratioak eskaintzen dira erreferentzia modura:
1961 – 1970 = 224 etxeb/urtean; 1971 – 1975 = 217 etxeb/urtean; 1976 – 1980 = 46 etxeb/urtean; 1981 – 1985 = 34 etxeb/urtean;
1986 – 1990 = 114 etxeb/urtean; 1991 – 1995 = 109 etxeb/urtean; 1996 – 2000 = 128 etxeb/urtean; 2001 – 2005 = 130 etxeb/urtean; 2006 – 2010 = 124 etxeb/urtean; 2011 – 2015 = 57 etxeb/urtean.

PK.02 – Karabel, ET.04 – La Cumbre eta SG.05 – Iturmendi sektoreetako eta eremuetako bizitegietarako erreserbak guztira 129 etxebizitza dira, eta horietatik 28 Erregimen Babestuari dagozkio, eta gainerakoak, hots, 101, salmenta-prezio libreko edo kontzertatuko etxebizitzak dira. Hau da, azken bosturteko erritmoaren arabera, bi urteko epealdi baterako eskaintza bermatuko dute. HAPBak 2015. urtean ekimen publikoz onetsi duen FL.08 – Florida (AMR) eremua gauzatuz gero orekatuta geratuko litzateke hori. Eremu hori, horren jabe gehiengoduna

ETORLUR Foru Sozietatea delarik, interes estrategikokotzat jo behar da epe laburrerako bizitegi-garapenerako, 308 etxebizitza eraikitzeko aukera eskaintzen duelako (176 BOE eta erregimen autonomikoko 132 etxebizitza tasatu).

B.- Jarduketa Ekonomikoen Erabilera:

Aztertutako epealdian ez da industria-eraikinak eraikitzeko inolako baimenik eman eta 2012. urtean (HK)GA.05 – Galarreta Sektorearen sustapenari dagozkion eta hirugarren sektoreko erabilera duten eraikinak egiteko baimenak ematea bakarrik onartu da, sestra gainean 24.279 m2(t) eta sestra azpian 27.152 m2(t) izanik. Aipatutako sektore horretan dagoeneko hiritartuta dauden gainerako orubeak, guztira beste 56.569 m2(t) eraikitzeko ahalmena dutela, gauzatu gabe daude 2011. urteaz geroztik, hots, sektorearen planeamendu eta berdintasunezko banaketaren prozesua amaitu zenetik.

Beste alde batetik, nahitaez adierazi beharra dago, aztertu eta konpondu beharrekoak diren zenbait arrazoi direla medio, udalerriaren garapenerako lehentasunezkotzat jo diren jarduera ekonomikoetarako sektoreetako bat bera ere ez dela gauzatzen hasi: (HK)GA.06, (HK)GA.07 eta (HK)GA.09. Sektore horiek guztiek industria-erabileretarako 66.227 m2(t)ko eta hirugarren sektoreko erabileretarako 13.400 m2(t)ko erreserba eraikigarriak eskaintzen dituzte.

C.- Sistema Orokorrak, Lokalak eta jarduketa estrategikoak:

Komunikazio Sistema Orokorren eta Lokalen Sareei dagokienez honako obra hauek burutu dira:

- Karabelgo zubi berria. (UE)PK.02 (URA Agentziaren ekimena)
- Akerregiko biribilgune berriaren urbanizazioa. (UE)AK.04 eta (UE)ZE.01 (Udalaren ekimena)
- Latsunbe-Urbieta hiri-igogailua. (HM)LA.02 (Udalaren ekimena)
- Hegoaldeko Saihesbidearen bide-bikoizketa (GI-131 Urumeako Autobia) (GFAren ekimena)
- Probintziako Bidegorri Sarea (Martindegi – Akerregi tartea) (GFAren ekimena)

Beste alde batetik azpimarratu behar da, hiriaren testuinguruan egitura aldetik duten garrantzi handiagatik, oraindik ere gauzatzeko daudela ondorengo jarduketa hauek:

- Ispizuako gune publiko-parkea. Ezkiaga Pasealekua Zinkoenearaino luzatzea. (HE)HS. 01
- Florida eta Landare elkartzen dituen bidea (eta trenbide azpiko tunela). (HI)FL.07 eta (UB)LZ.03
- Karabel auzoaren inguruko bide-lezoia – (UE)PK.01 eta (UE)PK.02
- Sorgintxulo – Galarreta (HK)SO.01 hiri-igogailua
- Latsunbe – Sorgintxulo (HM)LA.04, (HM)LA.05 eta (HK)SO.01 espaloi-tartea eta bidegorria.

Halaber, beharrezkoa da azpimarratzea oraindik ere proiektatzeko eta gauzatzeko daudela Urumea Ibaiaren Azterketa Hidraulikoak proposatutako uholdeen aurkako babes-lanak (Karabelgo zubia ordezkatzekoak izan ezik), udalerriarentzat garrantzi estrategiko handikoak eta URA Agentziak egin beharrekoak.

## I.6. – BERRIKUSPENAREN HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK

Agiri honek indarreko AASSBTBaren Jarduketa Programak xedatutako helburu orokorra berresten du, hau da, udalerriko hirigintza-planeamendu orokorrari bere aurreikuspenak nola exekutatu behar diren arautzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaini nahi dizkio. Xede horri begira, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 53. eta 55. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, egituraren antolamenduarekin batera, ondorengoak zehaztu behar dira:

- “hiri-antolamendurako eta lurzoruaren okupaziorako estrategia”
- “hirigintza-garapenaren hurrenkera logikoa, hiri-egituran barneratu ahal izateko bete behar diren baldintza objektibo zehatzak finkatuz”
- “jarduketa integratuetarako lehentasunen oinarrizko hurrenkera bat eta horiek programatu ahal izateko bete behar dituzten betebeharrak”
- “garapen-planeamendua prestatzeko eta onesteko eta lurzorua programatzeko epeak”

Printzipio horretatik abiatuta, agiri honen helburu berezia orain arte indarrean egon den Jarduketa Programaren berrikuspena da, horren zehaztapenak berregokitzeko, osatzeko eta zehazteko helburuz, eta horretarako, ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- erabakitako programazioaren betetze maila, bost urte igaro direla kontuan izanik.
- bost urte hauetan udalerriak bizi izan duen bilakaeraren balioespena.
- krisialdi ekonomiko – finantzarioaren testuinguruan egungo etxegintza-merkatuak izan duen bilakaerari buruzko hipotesien azterketa.
- interes publikoaren, iraunkortasunaren eta arrazionaltasunaren irizpideak aplikatuz, lurzoruaren okupazio-erritmoen programazio antolatu eta errealista bat ahalbidetzea, eta halaber, udalerriak dituen baliabide espazialen administrazio zuhur bat egitea, hiri-garapena ahalik eta eperik luzeenean bermatuko duena.
- gaur egun dagoeneko exekutatzen ari diren esku-hartzeak edo hirigintza aldetik ekarpen garrantzitsuagoak ahalbidetuko dituztenak, edo egungo hiri-egitura gehien eraldatuko dutenak lehenestea.
- programazioaren azken faserako uztea arrazoi juridikoak direla eta, Udalak AASSBTBaren antolamenduan barneratu behar izan zituen baina beren kokapen periferikoaren ondorioz, edo hirigintza arloko beste xehetasun batzuen ondorioz, hiri-egituraren hazkunderako hain egokiak ez diren garapen-eremuak.

Helburu eta irizpide hauek bat datoz kontzeptualki eta garatu egiten dituzte bere garaian indarreko AASSBTBaren Jarduketa Programa gauzatzeko erabakitakoak.

## I.7. – PROPOSATUTAKO JARDUKETA PROGRAMAREN DESKRIBAPENA ETA JUSTIFIKAZIOA

(ikus 3 zk. planoa eta 3 zk. Eranskineko taulak)

**A.-** Agiri honetan proposatutako Berrikusitako Jarduketa Programak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 53. eta 55. artikuluek eskatutakoa betetzearren, ondorengo oinarrizko zehaztapen hauek onartu ditu:

- Sistema Orokorrak eta jarduketa estrategikoak exekutatzeko lehentasunak eta epeak
- Jarduketa Integratuak exekutatzeko lehentasunak eta epeak
- Garapen-planeamendua izapidetzeko epeak
- Hirigintza Jarduketen Programak izapidetzeko epeak

**B.-** Jarduketa Programarako proposamen honek lurzoruaren eskaintza-aukeretan lehentasun, urrats eta neurri batzuk finkatzeko estrategia bati erantzuten dio, eta planeamendu orokorrean aurreikusitako erreserba zabalak nola gauzatu behar diren antolatzeaz eta arrazionalizatzeaz gain, 2007an AASSen Berrikuspen Proiektua onetsi zenean ezarritako antolamenduen ondorioak gutxitu nahi ditu, hain zuzen ere 2011. urtean onetsitako AASSBaren Testu Bateginak erabakitako antolamenduak nahitaez bere gain hartu behar izan zituelako.

Alde horretatik, Jarduketa Programak onartu behar izan du gaur egun gauzatzen ari diren eta eraikuntza-baimenak emanak dituzten jarduketak alde batera uzten baldin badira, (HI)ET.04.1, (HI)SG.05.1, (UE)PK.02.1 eta (UG)EP.02.1, gainerakoek hiri-garapenerako eskaintzen duten ahalmen orokorra (Jarduketa Integratuak) guztira 1.583 etxebizitza eta industria-erabileretarako 74.777 m2(t) eta hirugarren sektoreko erabileretarako 88.331 m2(t) direla.

Adierazitako abiapuntu horretatik, eta Memoria honetako I.6 epigrafean aipatutako irizpide eta helburuak kontuan izanik, hiri-antolamenduaren eta lurzoru-okupazioaren exekuzio-estrategia zehaztean, eta halaber, hirigintza-garapenaren hurrenkera logikoa ezartzean, orain arte indarrean egon den Jarduketa Programan egiten den moduan, egoki ikusi da indarreko planeamendu orokorrean aurreikusitako jarduketen exekuzioa hiru multzo independentetan berriro biltzea, horiek dituzten lehentasunen eta/edo hirigintza-ezaugarrien arabera.

Lehen bi multzoetan bildutako jarduketek launa urteko segidako bi epeetan hasi beharko dute beren exekuzioa, eta jarraitzen dien hurrengo laurtekoan amaitu beharko dute. Hirugarren multzoan sartutakoek, aldiz, zehaztu gabeko denbora-tarte batean hasi ahal izango dute beren exekuzioa, baina betiere kasu bakoitzean horretarako bereziki aurreikusitako baldintzen mende geratuko dira. Azken multzo horren barruan ondorengo jarduketak sartuko dira:

- Erabakitako hiri-bilakaerarako estrategiaren arabera, ez da beharrezko edo egoki ikusten horien exekuzioa programatutako lehen zortzi urteetan hastea. Agiri hau idazten ari garen garaian arautzat hartzen diren xehetasunak inoiz aldatzen baldin badira, halere, baina betiere xede horri begira aurreikusitako baldintzak betetzen baldin badira, Berrikusitako Jarduketa Programa honetan ezarritako lehentasunen ordena eta epeak berraztertu edo aldatu ahal izango dira.

- Zaila da horiek denbora-tarte zehatz baten mende jartzea, udalaren edo beste administrazio batzuen aurrekontu-baliabideekin, diru-laguntzekin, udalaz gaindiko erakundeek emandako finantza-laguntzekin eta abarrekin loturik daudelako, baita hiriaren birmoldaketa-prozesuekin ere.

Irizpide horretatik abiatuta, **Lehentasunezko Jarduketatzat** hartu dira berehalako epe batean gauzatu behar direnak eta behin betiko onetsitako exekuzio-programa bat dutenak. Oro har, 437 etxebizitza berri (horietatik 336 babes publikoko erregimenean dira) eta industria-erabileretarako 66.227 m2(t) eta hirugarren sektoreko erabileretarako 69.969 m2(t) eraikitzeko aukera eskaintzen dute.

**Lehen Laurtekoan** exekutatzen hasteko baimena jaso duten Jarduketa Integratuek, betiere aldez aurretik Lehentasunezko Jarduketak garatzearekin loturiko baldintza jakin batzuk betetzearen mende, guztira 335 etxebizitza berrik osatzen duten eraikuntza-ahalmen orokorra eskaintzen dute (etxebizitza horietatik 163 babes publikoko erregimenean dira).

**Bigarren Laurtekoan** exekutatzen hastea baimendua duten Jarduketa Integratuek, berriz, horiek ere aldez aurretik Programatutako jarduketa batzuk garatzearekin loturiko baldintza jakin batzuk betetzearen mende, 495 etxebizitza berri (horietatik 298 babes publikoko erregimenean dira) eta industria-erabileretarako 8.550 m2(t) eta hirugarren sektoreko erabileretarako 18.362 m2(t) biltzen dituen eraikuntza-ahalmen orokorra eskaintzen dute.

Azkenik, **Zehaztu gabeko Denbora-tarte** batean exekutatzen hastea baimendua duten Jarduketa Integratuen multzo bat aurreikusi da, betiere Bigarren Laurtekoa igaro ondoren, eta aurreko bi epealdietarako programatutako jarduketak aldez aurretik garatu beharrari buruzko baldintza jakin batzuk betetzearen mende. 445 etxebizitza berri (horietatik 335 babes publikoko erregimenean dira) biltzen dituen eraikuntza-ahalmen orokorra eskaintzen dute.

**C.-** Aurreko epigrafean azaldutako proposamenak bat datoz eta osatu eta hobetu egiten dituzte orain arte indarrean egon den Jarduketa Programa erabakitzean oinarritzat hartutakoak. Egungo hirigintza-egoerara egokitu dira, besterik ez (jadanik exekutatuta dauden eremuak ezabatuz), horien izaera edo funtsaren arabera jarduketaren bat edo beste birsailkatu da, eta hirigintza-unitateak nola exekutatu behar diren arautzen duten baldintza berriak eskaini dira.

**D.-** Aurreko epigrafeetan azaldutakoaren antzeko irizpidea errespetatu da garapen-planeamendua (Plan Partzialak eta Plan Bereziak) eta Hirigintza Jarduketen Programak nola idatzi eta nola izapidetu behar diren programatu denean.

**E.-** Programatutako jardueren hedadura orokorra kontuan izanik eta, beste alde batetik, egungo egoera ekonomikoak oraindik ere bai herri-administrazioei eta bai partikularrei ere eragiten dien ziurgabetasunaz jabetuta, Berrikusitako Jarduketa Programa hau indarrean sartu eta handik zortzi (8) urtera, bertako zehaztapenen berrespena edo, hala egokituz gero, egokitzapena edo moldaketa izapidetu beharko da formalki.

Era berean, horren beharra argudioen bitartez justifikatuz gero (orain agiri honen erredakzioarekin jokatu den modu berean), egokitzapen edo aldaketa hori egin ahal izatea proposatu da, betiere Berrikusitako Jarduketa Programa hau behin betiko onesten denetik gutxienez lau (4) urte igaro ondoren.

# II.- BIGARREN ZATIA:

# JARDUKETA PROGRAMA

## II.1.- PROGRAMA HONEK ARAUTU EZ DITUEN GARAPENAK ETA JARDUKETAK

Programa honek ez ditu arautzen Hernaniko Udalerriko Hirigintza Planeamendurako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren indarreko Testu Bateginak erabakitako hirigintza-antolamenduak aurreikusi dituen ondorengo garapen eta jarduketak:

**A).-** Gaur egun dagokion Jarduketa Programa duten hiri-garapenak; beraz, Programa horrek arautuko du garapen horien exekuzioa, eta agiri honek onartu egiten ditu haren zehaztapen guztiak.

Programa horiek finkatuta geratu dira jadanik onetsi diren Garapen Planeamenduan eta Hirigintza Jarduketarako Programetan. Jarduketa horiek ondorengoei dagozkie:

- (UB)MA.02 Eremua; horren Hiri Antolamendurako Plan Berezia 2006ko abuztuaren 28an onetsi zen behin betiko.
- (HK)GA.05 Sektorea; horren Plan Partziala 2010eko urriaren 28an, 2011ko maiatzaren 19an eta 2011ko azaroaren 29an onetsi zen behin betiko eta Hirigintza Jarduketarako Programa 2011ko maiatzaren 24an.
- (HK)GA.06 Sektorea; horren Plan Partziala 2009ko apirilaren 21ean onetsi zen behin betiko.
- (HK)GA.05 Sektorea; horren Plan Partziala 2011ko martxoaren 31n eta 2013ko azaroaren 26an onetsi zuten behin betiko eta Hirigintza Jarduketarako Programa 2014ko uztailaren 11n.
- (HK)GA.09 Eremua; horren Hiri Antolamendurako Plan Berezia 2014ko irailaren 30ean onetsi zuten behin betiko.
- (UE)PK.02 Eremua; Hiri Antolamendurako Plan Berezia 2012ko irailaren 25ean onetsi zuten behin betiko eta Hirigintza Jarduketarako Programa 2012ko abenduaren 28an.
- (HI)FL.08 Eremua; Hiri Antolamendurako Plan Berezia 2015eko maiatzaren 20an onetsi zuten behin betiko.
- (UG)EP.02 Sektorearen 2. Exekuzio Unitatea; Plan Partziala 2002ko uztailaren 30ean eta 2009ko abenduaren 18an onetsi zuten behin betiko, eta Hirigintza Jarduketarako Programa 2012ko uztailaren 27an.
- (HI)ET.04 Eremua; Hirigintza Jarduketarako Programa 2014ko apirilaren 11n onetsi zuten behin betiko.
- (HI)SG.05 Sektorea; Plan Partziala 2013ko martxoaren 26an onetsi zuten behin betiko, eta Hirigintza Jarduketarako Programa (2013ko irailaren 20an.

Nolanahi ere, aurrerantzean izapidetu litezkeen eremu edo sektore hauen antolamendu xehakatua aldatzeko espedienteetan (Plan Partzialak eta Plan Bereziak) Hernaniko Udalak erabakiko du dagozkion Jarduketa Programak aldatu eta berregokitu behar diren (agiriak aurkezteko epeak, eraikinak eta hirigintza-lanak egitekoak, eta abar), eta hala egokituz gero, horretarako kontuan hartu behar diren jarraibideak ezarriko ditu.

**B).-** Jarduera ekonomikoen erabilerarako xedatutako hiri-lurzoruko Eremuei dagozkien Jarduketa Integratuak, baldin eta horietan hiri-birmoldaketarako eragiketak proposatzen badira, kalifikazio-aldaketarik gabe: (UE)ZE.01.3, (UE)ZE.01.4 eta (UE)ZE.01.8.

**C).-** Udalerrian indarrean dagoen planeamendu orokorrak aurreikusitako Zuzkidura Jarduketak.

**D).-** Udalaz gaindiko hedadura duten Komunikazioen edo Zerbitzuko Azpiegituren Sistema orokorrak, baldin eta horien obrak erakunde eskudunek (Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko Gobernuak) horietarako erabakitzen duten programazioaren mende geratzen badira, hala nola:

- Abiadura Handiko Trena.
- ADIFen Geltokia eta Geralekua hobetzea.
- Mendebaldeko Saihesbidea (GI - 2132 Zirkuituko Errepidea)
- Errepideen Foru Sareko zerbitzuko parkea (UB)MA.01.1 Eremua

## II.2.- SISTEMA OROKORRAK ETA JARDUKETA ESTRATEGIKOAK EXEKUTATZEKO LEHENTASUNAK ETA EPEAK

### A).- Gune Libreen Sistema Orokorraren eta Lokalaren Sarea

- **LEHEN LAURTEKOAREN** barruan ondorengo jarduketa hauei ekin beharko zaie:
  - Ispizua gune publiko-parkearen urbanizazio-lanak. Ezkiaga pasealekua Zinkoeneraino luzatzea. (HE)HS.01. Udalak sustatua. Jarduketa honek, nolanahi ere, (HH)LI.03.1 Jarduketa Integratuaren (Bizitegietarako Eremua) exekuzioarekin koordinatuta geratu behar du.
  - Leoka gune publiko-parkearen egokitzapen-lanak. (HE)HS.03. Sustapen pribatua.

- **BIGARREN LAURTEKOAREN** barruan ondorengo jarduketa hauei ekin beharko zaie:
  - Atzieta parkea handitzeko urbanizazio-lanak. (HE)HS.03. Udalak sustatua. Jarduketa honek, nolanahi ere, (HE)HS.03.1 Jarduketa Integratuaren (Bizitegietarako Eremua) exekuzioarekin koordinatuta geratu behar du.
  - Mendi Mendian parkea handitzeko urbanizazio-lanak. Sustapen pribatua. Jarduketa honek, nolanahi ere, (HM)VI.06.1 Jarduketa Integratuaren (Bizitegietarako Sektorea) exekuzioarekin koordinatuta geratu behar du.

- Ondorengo obra hauek **ZEHAZTU GABEKO EPE** batean egingo dira, eta Udalak libreki erabakiko du hori, hiri-garapenak bizi duen egoeraren eta finantza-baliabideen arabera:

  - Politena parkea handitzeko egokitzapen-lanak. (HE)ET.04. Udalak sustatua.
  - Mendi Mendian parkea handitzea, “Heriotzaren Aldapa” izeneko inguruan. (HI)AN.07. Udalak sustatua. Jarduketa honek, nolanahi ere, (HI)AN.07.1 Jarduketa Integratuaren (Bizitegietarako Sektorea) exekuzioarekin koordinatuta geratu behar du.

### B).- Ekipamendu Komunitarioaren Sistema Orokorraren eta Lokalaren Sarea

- **LEHEN LAURTEKOAREN** barruan ondorengo jarduketa hauei ekin beharko zaie:

  - Transpacar Udal Zentroa ordezkatzea. Udalak erabaki beharko du kokagunea eta programa. Udalak sustatua. Jarduketa honek, nolanahi ere, (HM)VI.05 Bizitegietarako Eremuaren exekuzioarekin koordinatuta geratu behar du.

- Ondorengo jarduketa eta obra hauek **ZEHAZTU GABEKO EPE** batean egingo dira, eta Udalak libreki erabakiko du hori, ekipamendu-premien udal programak bizi duen egoeraren eta finantza-baliabideen arabera:

- Kultura Etxea eta Musika Eskola eraikitzea. (HM)LA.02. Udalak sustatua.
- Ereñotzun ekipamenduetarako lur-zati bat eskuratzea. (UG)ER.03. Udalak sustatua.

**C).- Komunikazioen Sistema Orokorren eta Lokalen Sareak**

- **LEHEN LAURTEKOAREN** barruan ondorengo jarduketa hauei ekin beharko zaie:

  - Florida eta Landare elkartuko dituen bidea (eta trenbide azpiko tunela) eraikitzea. (HI)FL.08 eta (UB)LZ.03. Udalak eta Pribatuek sustatua. Jarduketa honek, nolanahi ere, (HI)FL.08.1 Jarduketa Integratuaren (Bizitegietarako Eremua) exekuzioarekin koordinatuta geratu behar du.
  - Karabel auzoaren inguruko bide-lezoiaren tartea eraikitzeko lanak. (UE)PK.01. Udalak sustatua. Jarduketa honek, nolanahi ere, (UE)PK.02.1 Jarduketa Integratuaren (Bizitegietarako Eremua) barruan sartutako bide-lezoiaren beste tarte baten exekuzioarekin koordinatuta geratu behar du.
  - Trenbidearen azpiko tunel berria Portun. Udalak eta Pribatuek sustatua. Jarduketa honek, nolanahi ere, (UE)PK.03.1 Jarduketa Integratuaren (Bizitegietarako Sektorea) exekuzioarekin koordinatuta geratu behar du.
  - Sorgintxulo – Galarreta hiri-igogailua eraikitzeko lanak. Udalak eta Pribatuek sustatua. (HK)SO.01 eta (HK)GA.05.
  - Latsunbe eta Sorgintxulo artean espaloi-bidegorriaren urbanizazio-lanak burutzea. (HM)LA.04 eta (HK)SO.01. Udalak sustatua.
  - Landare eta Zubiondoko zubia elkartuko dituen bide-tartea. (UB)LZ.02. Udalak sustatua.
  - Bidegorrien hiri-sarea. Udalak sustatua.

- **BIGARREN LAURTEKOAREN** barruan ondorengo jarduketa hauei ekin beharko zaie:

  - Elizatxo-Lizeaga hiri-igogailua eraikitzeko lanak. Sustapen pribatua. Jarduketa honek, nolanahi ere, (HH)EL.02.1 Jarduketa Integratuaren (Bizitegietarako Eremua) exekuzioarekin koordinatuta geratu behar du.

- Ondorengo jarduketa eta obra hauek **ZEHAZTU GABEKO EPE** batean egingo dira, eta Udalak libreki erabakiko du hori, hiri-garapenak duen egoeraren eta finantza-baliabideen arabera:

  - Aristizabal kalearen lehen tartean galtzada zabaltzeko eta espaloia eraikitzeko lanak (HM)KA.03.4. Udalak sustatua.
  - Karabelgo aldirietako aparkalekua egokitzeko obrak burutzea. (UB)LZ.04 eta (UE)PK.01. Udalak sustatua.
  - Larramendi - Sandiusterri (HH)LI.01 eta Urbieta - Karobieta (HM)LA.02 hiri-igogailuak.

- Bestizan inguruan trenbidearen gaineko igarobidea. (HE)FL.10. Udalak sustatua.
- Zikuñaga-Eziago ibai-ertzeko pasealekua. (UE)ZE.01. Udalak sustatua.
- Mugikortasun Iraunkorreko Planetik ondorioztatutako beste jarduketa batzuk hirigunean. Udalak sustatua.

**D).- Beste elementu estrategiko batzuk**

URA Agentziak onetsitako Urumea Ibaiaren Azterketa Hidraulikoak proposatutako uholdeen aurkako babes-lanak **ZEHAZTU GABEKO EPE** batean egin beharreko jarduketatzat hartzen dira, eta beraz, Udalaren eta URA Agentziaren artean izenpetu beharreko Hitzarmenetan horri begira ezartzen den programazioaren arabera egingo da horren exekuzioa.

## II.3.- JARDUKETA INTEGRATUAK EXEKUTATZEKO LEHENTASUNAK ETA EPEAK

**A)-** Agiri honetako II.1.A epigrafean aipatzen diren 10 Jarduketa Integratuak (JI) lehentasunez exekutatu beharrekoak dira. Berehalako epean exekutatzea baimentzen da, horiei aplikagarri zaizkien indarreko Prometan horretarako aurreikusten diren zehaztapenekin eta baldintzekin bat etorriz.

- Bizitegietarako Erabilera: (UE)PK.02 Eremua, (HI)FL.08 Eremua, (HI)ET.04 Eremua eta (HI)SG.05 Sektorea.

- Jarduera Ekonomikoetarako Erabilera: (UB)MA.02 Eremua, (HK)GA.05 Sektorea, (HK)GA.06 Sektorea, (HK)GA.07 Sektorea, (HK)GA.09 Eremua eta (UG)EP.02. Sektorea.

**B)-** Berrikusitako Jarduketa Programa hau indarrean sartzen denetik kontatzen hasi eta **LEHEN LAURTEKOAN**, jarraian aipatzen diren Jarduketa Integratuak (JI) exekutatzen hastea baimenduko da, eta programatutako hurrengo laurtekoa amaitu aurretik garatu eta amaitu beharko dira. Kasu bakoitzean, Jarduketa Programa honetan ezartzen diren baldintzak bete beharko dira beti, horiek exekutatzen hasi aurretik.

Lehen Laurteko honetarako programatutako bizitegi-erabilerarako Jarduketa Integratuak lurzoru hiritarreko (gehienak) eta hiritargarriko eremuei dagozkie, berrantolatzeko edo zirrikituak betetzeko esku-hartzeen mende daude, eta egitura-helburu estrategikoak betetzearekin loturik daude (sistema orokorren eta lokalen ekarpena, bide-sarea, gune libreak eta abar):

- Bizitegi Erabilera (*): (HI)FL.07.1 Eremua, (HI)FL.09.1 Eremua, (HH)LI.03.1 Eremua, (UB)MA.03.1 Eremua, (UE)PK.03.1 Sektorea eta (HK)SB.03.1 Eremua.
(*) Bizitegi-unitateen exekuzioa abian jartzea arautzen duten baldintzak:

- Lehen Laurtekoan, aipatutako Bizitegi Eremuen planeamendu xehakaturako, urbanizaziorako eta kudeaketarako (HJP, Lur-zatien Banaketa eta abar) agiriak izapidetu eta onetsi ahal izango dira.

- Lehen Laurteko horretan, halaber, eremu horiei dagozkien urbanizazio-lanen exekuzioa hasi ahal izango da.

- Nolanahi ere, eremu eta sektore hauek eraikitzeko baimenak emateko baldintza izango da (UE)PK.02 eta (HI)SG.05 Lehentasunezko Exekuziorako jarduketetan antolatutako etxebizitza guztien % 75entzat gutxienez eraikuntza-baimena aldez aurretik ematea.

- (HI)FL.09.1 Eremuaren eta (UE)PK.03.1 Sektorearen kasuan, aurreko baldintza hori ez ezik, (HI)FL.06 (Florida - AMR) Lehentasunezko Exekuzioaren jarduketa egiten hasiak badaude, eremu horretan antolatutako etxebizitza guztien % 50entzat gutxienez eraikuntza-baimenak emanak egon beharko dute. Azken baldintza hori ez da aplikagarri izango baldin eta Lehen Laurtekoan ez badira oraindik aipatutako

Lehentasunezko Exekuziorako jarduketa hori egiten hasi. Hala gertatuz gero, horren Hirigintza Jarduketarako Programak, baimenak eskatzeko epeei dagokienez, (HI)FL.09.1 Eremuaren eta (UE)PK.03.1 Sektorearen exekuziorako aurreikuspenetatik Udalak erabakitzen dituenetara egokitu beharko du, une horretan ezartzea egoki den bizitegi-garapenerako erritmoak arautzeari begira.

- Aurreko bi epigrafeetan adierazitako exekuzio-baldintzak Lehen Laurteko honetan aurreikusitako bizitegi-eremuetarako izapidetu eta onetsi beharko diren Hirigintza Jarduketarako Programetan jaso beharko dira.

**C)-** Berrikusitako Jarduketa Programa hau indarrean sartzen denetik kontatzen hasi eta **BIGARREN LAURTEKOAN**, jarraian aipatzen diren Jarduketa Integratuak (JI) exekutatzen hastea baimenduko da, eta programatutako hurrengo laurtekoa amaitu aurretik garatu eta amaitu beharko dira. Kasu bakoitzean, Jarduketa Programa honetan ezartzen diren baldintzak bete beharko dira beti, horiek exekutatzen hasi aurretik.

Bigarren Laurteko honetarako programatutako Jarduketa Integratuak lurzoru hiritarreko (gehienak) eta hiritargarriko eremuei dagozkie, eta sistema orokor eta lokaletarako, bide-sistemarako, gune libreetarako eta abarretarako egiten duten ekarpena da horien bereizgarria.

- Bizitegi Erabilera: (*): (HE)HS.03.1 Eremua, (HM)VI.06.1 Sektorea, (HH)EL.02.1 Eremua, (UE)PK.06.1 Eremua, (UE)OS.02.1 Eremua (ikus **)

(*) Bizitegi-unitateen exekuzioa abian jartzea arautzen duten baldintzak:

- Lehen Laurtekoan, aipatutako Bizitegi Eremuen eta Sektoreen planeamendu xehakaturako, urbanizaziorako eta kudeaketarako (HJP, Lur-zatien Banaketa eta abar) agiriak izapidetu eta onetsi ahal izango dira.

- Lehen Laurteko horretan, halaber, eremu eta sektore horiei dagozkien urbanizazio-lanen exekuzioa hasi ahal izango da.

- Nolanahi ere, eremu eta sektore hauek eraikitzeko baimenak emateko baldintza izango da (HI)FL.08 Lehentasunezko Exekuziorako jarduketan antolatutako etxebizitza guztientzat eraikuntza-baimena aldez aurretik ematea, eta halaber, (HI)FL.09.1 Eremuan eta (UE)PK.03.1 Sektorean antolatutako etxebizitza guztien % 75entzat gutxienez eraikuntza-baimena aldez aurretik ematea, Jarduketa Programa honek Lehen Laurtekorako aurreikusia.

- Ondorengo bi Jarduketa Integratu hauen aldi bereko exekuzioaren kasuan: (HM)VI.06.1 Sektorea eta (HH)EL.02.1 Eremua; eraikuntza-baimena ematea bizitegien eskaeraren arabera eta une horretako etxebizitzen merkatuak bizi duen egoeraren arabera Udalak erabaki dezakeen urteko gehieneko batez besteko erritmora mugatu beharko du. Urteko gehieneko batez besteko erritmo hori, halere, ez da inoiz 108 etxeb/urtean baino handiagoa izango horien guztien artean (2011 – 2015 epealdian erdietsitako kopururik handiena da hori).

(**) - (UE)OS.02.1 Eremuan baimenak eman ahal izateko baldintza izango da (UE)ZE.09.1 Sektorearen exekuzioa aldez aurretik edo aldi berean hastea, zerrategia lekuz aldatu dadila ahalbidetzearren. Lehen Laurtekoan zerrategia lekuz aldatzea proposatzen baldin bada, Eremuaren eta Sektorearen exekuzioa laurteko horretara aurreratzea baimenduko da.

- Aurreko hiru epigrafeetan adierazitako exekuzio-baldintzak Lehen Laurteko honetan aurreikusitako bizitegi-eremuetarako izapidetu eta onetsi beharko diren Hirigintza Jarduketarako Prometan jaso beharko dira.

- Jarduera Ekonomikoetarako Erabilera:

- (HK)GA.08.1 Sektorea
- (UE)ZE.09.1 Sektorea (ikus **)

- Nolanahi ere, (HK)GA.08.1 Sektorean eraikitzeko baimenak emateko baldintza izango da Galarretako Lehentasunezko Exekuziorako jarduketetan antolatutako hirugarren sektoreko jarduera ekonomiko guztien % 50entzat gutxienez eraikuntza-baimena aldez aurretik ematea.

- Aurreko epigrafean adierazitako exekuzio-baldintzek sektore honetarako izapidetu eta onetsi beharko den Hirigintza Jarduketarako Programan jasota geratu beharko dute.

**D)-** Jarraian aipatzen diren Jarduketa Integratuen (JI) exekuzioa hasteko baimena ematen da, baina bakar-bakarrik, kasu bakoitzerako Jarduketa Programa honetan ezarri diren epe eta baldintzetan.

Jarduketa Integratu programatu hauek lehendik dagon hiri-bilbearen inguruan kokatutako lurzoru hiritargarriko eremuei dagozkie.

- Bizitegi Erabilera (*): (HI)AN.07.1 Sektorea, (HI)SG.06.1 Sektorea eta (HK)SB.04.1 Sektorea.

(*) Bizitegi-unitateen exekuzioa abian jartzea arautzen duten baldintzak:

- Aipatutako Bizitegi Sektoreen planeamendu xehakaturako, urbanizaziorako eta kudeaketarako (HJP, Lur-zatien Banaketa eta abar) agiriak izapidetzeko eta onesteko, baldintza hauek bete beharko dira:

  - Berrikusitako Jarduketa Programa hau indarrean sartzen den egunetik gutxienez zortzi (8) urteko epea igaroko da.

